


# ✿ Hitz eta Pitz ✿

Patricia Aldanari elkarrizketa

Asun Agiriano, Esti Ezkerra eta Izaskun Jauregi

*Naroa Zubillagak itzulita*



**«IBBYn une honetan argi daukagu umek beren kulturari buruzko liburuak eta beren hizkuntzan idatziak behar dituztela»**

*Patricia Aldanak eskarmentu handia du haur eta gazte liburuak argitaratzen. Hogeita hamar urte daramatza sektorean erreferente den Groundwood Books argitaletxea zuzentzen, Kanadan kokatua berau.*

*Aldana Guatemalan jaio zen, baina aspalditik Ontarion bizi da. 2006an International Board on Books for Young People-ko (IBBY) lehendakari izendatu zuten.*

*Elkarrizketa hau Miramar Jauregian egin genuen, bertan izan baitzen Haur eta Gazte Liburuari buruzko IV. Iberiar Kongresua, Haur Liburuaren Espainiako Erakundeak (OEPLI) eta haren atalek –Consejo General del Libro Infantil y Juvenil, ClijCAT (Consell Català del Llibre Infantil i Juvenil), Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literaturako Elkarteak, GÁLIX (Asociación Galega do Libro Infantil e Xuvenil)– eta APPLIJ IBBYko Portugalgo nazio-sailaren (Associação portuguesa para a promoção do livro infantil e juvenil) laguntzaz antolatua. Desberdin Irakurriz: Haur eta Gazte Liburuak Kultura Aniztasunean leloa zeraman biltzarrak.*

**Galtzagorri:** Haur eta Gazte Liburuari buruzko IV. Iberiar Kongresuak kultur aniztasunaren gaineko ikuspegi zabala eskaini digu. Zure ustez, zein erabaki hartu beharko lituzke IBBYk hainbat kulturarekin bizi behar izateak planteatu ditzakeen beharrei erantzuteko?

**Patricia Aldana:** Lehenik eta behin, kome-nigarria litzateke zehaztea IBBY nazio-sailetan dagoela egituratuta. Horrez gainera, batzorde exekutibo bat du nazioarte mailan ari dena, eta nazio-sailek beraiek izendaturiko hamar lagunek osaturik dago. Honekin zera esan nahi dut, IBBYk norabidea finkatu edo ideiak proposa ditzakeela, baina dauzkan programez gain –tailerrez, ematen dituen sariez zein «Krisi egoeran diren umeak» programaz ari naiz–, ez du erabaki zuzenik hartzen. Nazio-sailei dagokie beren bidea egitea.

Egia da azken hamar urte hauetan aldaketa handiak izan direla IBBYren rolari begira. Esaterako, une honetan argi daukagu umeek beren liburuak, beren kulturari buruzkoak eta beren hizkuntzan idatziak alegia, behar dituztela. Orain dela berrogeita hamar urte, IBBYn horrelakorik aldarrikatzea pentsaezina zen, baina hartu beharreko neurria da. Ideia honen harira, IBBYk erakusketa birtual bat antolatu zuen Afrikan, tokiko idazleen hizkuntzetan idatziriko liburuekin.

IBBY barruan diren zenbait herrialde ez daude politika honekin ados, eta beste batzuek, aldiz, hizkuntza oinarrikoa dela uste dute. Frantzia, adibidez, lehenengoen artean dago, baina horrek ez du esan nahi tokiko IBBYk gobernuaren jarrera

bera duenik. Aitzitik, bere zerrendetan afrikar jatorriko egileak egon badaude. Oro har, ingelesaren eraginpean diren herrialdeek frantsesaren eraginpean direnek baino jarrera irekiagoa agertu ohi dute hizkuntza aniztasunarekiko: Hegoafrikan tokiko hamabi hizkuntzak kontuan hartzen ditu hezkuntza-sistemak; Senegalen, berriz, frantsesa bakarrik aintzat hartzen dute. Baina, lehen esan bezala, nazio-sailen esku dago neurri pluralagoak martxan jartzea.

**G:** Esan duzunaren harira, Frantziako gobernuak uko egin dio euskara bere lurraldeko hizkuntza gisa kontuan hartzeari.

**P. A.:** Hango eskoletan beloa eramatea ere debekaturik dago... IBBYk ezin du gobernuen politika aldatu, baina erakunde gisa kultur aniztasunaren alde egiten du, batez ere gutxiengo baten kulturak direnean. Gutxiengoek babes eta errespetu handiagoa behar dute.

**G:** 2006an, Macaun izan zen kongresuan izendatu zintuzten IBBYko lehendakari. Nolakoak izan dira erakunde horren zuzendaritzan igaro dituzun bi urteak? Zein izan da zure funtzioa eta zein oztopo aurkitu dituzu hura betetzeko orduan?

**P. A.:** Lehendakari bakoitzak bere helburuak ditu. Niri dagokidanez, aldaketa-egoera bati aurre egitea egokitu zait. Lehen aldiz IBBYko kide egin nintzenean, erakunde arras europarra iruditu zitzaidan, alemaniar hizkuntzaren eraginpean diren herrialdeak zirelarik, batik bat, indartsuenak.





Garai hartako Andersen sariak aztertzeari ekingo bagenio, behin baino gehiagotan European bukatu zutela ohartuko ginatke berehala. Orduan, jada, IBBYk munduari atek ireki behar zizkiola, nazioarteari begira jokatu behar zuela jendeari ikusarazten ahalegindu nintzen.

Lehendakaritzan nagoenetik, ideia horren aldeko urratsak egin ditugu. Esaterako, bulego nagusian lan egiteko kontratatu dugun bigarren pertsona Txinakoa da. Ez zen zeregin batere erraza izan behar bezala prestatu egoteaz gainera, Suitzara bizitzera joateko arazorik ez zuen norbait aurkitzea, Suitzian baitago kokaturik gure bulegoa, baina egin egin dugu. Bestetik, batzorde

exekutiboa orekatze aldera, hainbat herrialdeetako kideei toki egin diegu. Era berean, Andersen sarian lehiatzen diren lanak ingelesera itzuliak izango direla bermatu nahian gabiltza. «Krisi egoeran diren umeak» programa ere martxan jarri dugu, eta ni neu buru-belarri ari naiz proiektu horretan. Azkenik, nazio-sailek indartu ditzaketan neurriak aztertzen gabiltza, lehen esan bezala IBBYren lana nazio-sailen menpe baitago. Saitetako batzuk, zenbait arrazoi direla medio, oso ahulak dira eta, horren ondorioz, haietako batzuek arazoak dituzte IBBYko kide izatea ahalbidetzen dien kuota ordaintzeko.





**G:** Alderdi pertsonalari helduz, euskal jatorriko arbasoak dituzu. Horren harira, IBBYko euskal delegazioaren eta, duten harremanetatik, Kataluniako zein Galiziako delegazioen egoerari buruz duzun iritzia jakin nahiko genuke. Erakunde nagusiaren barruan behar bezala ordezkaturik daudela iruditzen zaizu?

**P. A.:** IBBYrentzat Espainia eredugarria dela uste dut, beste hainbat herrialdek duten arazo berari, hau da, nola toki egin kultur sentsibilitate ezberdinei, aurre egiten jakin izan duelako. Kanadan, adibidez, Torontoko gune nagusia izaten jarraitzen du. Kanadako IBBYk nazio-sail bakarra du, hots, Quebec zein urrutiko probintziak propio ordezkatzeko dituen sailik ez dago. IBBYk sortzen duen material guztia bi hizkuntzetan dago, baina besterik ez. Indiako kasua aipa nezake, hainbat etnia biltzen baititu, edo beste hainbat herrialderen egoera. Haietatik bat berak ere ez du Espainiako IBBYk duen egituraketa-maila, zeinak lurraldeko komunitate linguistikoak ordezkaturik egotea ahalbidetzen duen.

**G:** Hala ere, ohorezko zerrendan OEPLik hiru hautagai besterik ez ditu izendatzen, bai itzultzaileen bai literatura sormenaren arloan, eta lau dira espainiar estatuko hizkuntza ofizialak. Bere garaian, OEPLik hautagai kopurua laukoa izatea eskatu zion IBBYri, hizkuntza bat bera ere bazterrean gera ez zedin, baina haren eskaera ez da oraindik kontuan hartu.

**P. A.:** Nire iritziz, horren berri eman beharko zenukete. Lau hizkuntza ofizial badaude, ezin da haietako bat bera ere baztertu. Ez dut uste IBBY horren aurka egongo denik, nahiz eta ohorezko zerrenda arraz luzea den eta ahalegin ekonomiko handia eskatzen duen.

**G:** Horren moduko kasu gehiago ba al dago IBBY barruan?

**P. A.:** Belgika eta Kanada besteak beste... herrialde elebidunak egon badaude. Dena dela, nazio-sailik ez da, Espainiakoaz aparte, zeinetan lau hizkuntza ordezkaturik dauden. Hegoafrikak hamabi inguru eska zitzakeen, eta India ez litzateke oso urrun ibiliko. IBBYk aztertu beharreko kontua da, bere ideiekin bat datorren jarrera hartu ahal izateko.

**G:** Euskal Herrian maiz gertatu zaigu ez komunikabideek ez liburuaren munduko profesionalak IBBY zer den jakitea. Liburuaren Nazioarteko egunean soilik lortzen dugu oihartzun pixka bat edukitzea. Agian OEPLren errua da, IBBYren funtzioak behar bezala azaltzen asmatu ez duelako, edo, akaso, IBBY bera da arazo horren erantzule, informazio-kanpainetan huts egin duelako. Egoera horri buelta emateko ekintzarik pentsatu duzue?


**P. A.:** Zoragarria litzateke zer edo zer egitea. Gaur gaur, Liburutegi Nazioarteko Elkartearekin akordio bat dugu, zeinaren bitartez gure lana

zabal dezakegu. Guk ideiak jartzen ditugu, eta haiek, berriz, dirua. Bestetik, gure web-orria, une honetan den baino eraginkorrago bihurtzeko modua aztertzen ari gara. Haren bitartez, bibliografia gisa, irakurketa-sustapenarekin zerikusia duen esperientzia oro, berdin du zein hizkuntzatan eta zein herrialdetan idatziak izan diren, jasotzeko asmoa dugu. Modu horretan, IBBYrekin lanean ari diren zein harekin batere zerikusirik ez duten pertsonak gai honi buruz duten informazioa trukatu ahal izango dute.

Dena dela, zinez uste dut nazio-sailen egitekoa dela egiten ari garenaren berri ematea. IBBYko batzar bakoitzaren ostean, nik neuk gutun bat idatzi ohi dut eztabaidatuaren berri emanez. Gutun hori sail guztiei bidaltzen diet zabal dezaten, baina jakin badakit haietako askok ez dutela

hori betetzen. Egia da ingelesarekin, hizkuntza horretan komunikatzen baikara gehienetan, arazo bat dugula, baina ez dugu itzulpenak egiteko baliabiderik. Hala ere, dirua edukiko bagenu, «Krisi egoeran diren umeak» programak zein sailei zuzenduriko tailerrek lehentasuna edukiko lukete, eta haien ostean etorriko lirateke itzulpen-lanak, komunikazioaren hobetzea, etab.

**G:** OEPLIren barruan, bai Galtzagorri bai gainerako sailetan, erakundeek Haur eta Gazte Literaturaren garrantzia uler dezaten lanean ari gara. Baina ez da zeregin erraza. Zure ustez, zer egin daiteke erakundeak jabe daitezten liburu onak haurrek zein helduek berdin-berdin goza ditzaketela? Zein urrats egin daitezke literaturaren munduarekin batere harremanik ez duen jendeak beste horrenbeste pentsa dezan?



**P. A.:** Kontua zera da, umeak, berez, ez direla garrantzitsuak, ezta? Bizi garen gizartean, umeak eskubide eta errespetu bako pertsonak dira. Merkatu-objektu gisa dira bakarrik kontuan hartuak. Gerretan hildako umeen kopurua handiena izaten da, haiek dira gehien sufritzen dutenak ere, baina inor ez da mintzo horretaz. Une honetan, Irakera bidali diren estatubatuar zein kanadar soldaduen seme-alaben testigantzak biltzen dituen liburu bat argitaratzekoa naiz Ipar Amerikan. Ume horiek esaten dutena irakurtzea nahikoa da haien babes faltaz ohartzeko, denbora luzea igarotzen baitute beren gurasoak ikusi gabe eta, haiek bueltatzen direnean, hainbeste aldatu dira ezen arrotzak iruditzen zaizkie. Haur horiek lagun ditzakeen programarik ez da, ezta base militarretan ere. Etorkizunean, ume horiek populazioaren sektore problematiko bat izango dira, arras traumatizatu-ta baitaude. Beste horrenbeste esan liteke Irakeko ume errefuxiatuei buruz.

Umeak ikusezinak dira, eta salatu beharra dago hori. Arazoa zera da, zaila dela bat kontuan hartua izatea bat ere boteririk ez duenean. Hortxe dago erronka.

**G:** Umeen erdia baino gehiago azaldu duzun egoeran dagoen bitartean, Lehen Munduan haurtzarora gehiegi babesten den irudipena da nagusi.

**P. A.:** Baina objektu gisa ikusiak dira umeak, ez dira izaki errespetatuak. Beraiei zuzenduriko liburuetan den zentsura ikaragarria ikustea besterik ez dago. Liburu horiek ez dute ezertaz hondraduki hitz egiten, errealitateaz gezurra esaten dute nahita, eta arazoak erraz konpondu daitezkeela azaltzen dute. Haur homosexualei buruzko ezta bortxakeriaren biktima izan diren umeek gaineko libururik ez dago. Honen aurrean, editoreok argi utzi behar dugu zein den gure jarrera.

**G:** OEPLiko kongresuak txandaka egiten dira, beraz, oraingo honetan, Galtzagorri egokitu zaio ekitaldia antolatzea. Hasieratik haur eta gazte li-


buruaren inguruko sektore guztiek parte hartzea nahi izan dugu, baina partaideetako batzuek aipatu digute euren ustez kongresu hauek gutxiengo bati, hau da mundu akademiko-intelektualari zuzendurik egoten direla. Zer egin daiteke ideia hau zuzentzeko?

**P. A.:** Horrelako ekitaldiak orekatzearen aldekoa naiz. IBBY ez da akademikoen kontua soilik. Zenbait herrialdetan nazio-sailen lana mundu akademikoan dago oinarrituta; editore moduan, zertxobait problematikoa iruditzen zait hori. Liburuaren eta haurren arteko topaketak zerikusi gutxi du kritikarekin. Baina editore gisa dudan aurreiritzi bat da hori. IBBYn liburua umearen eskuetara heltzeko prozedura guztiak kontuan hartu behar ditugu. IBBY barruan sortzaileen, irakurketa sustatzaileen, akademikoen, editoreen, eta abarren ahotsentzako tokia egon beharra dago.

**G:** Editore zaren aldetik, nola ikusten duzu haur eta gazte literaturaren egungo egoera?







**P. A.:** Une nahiko larrian gaude, batez ere Kanada bezalako herrialde batetik egiten badugu irakurketa, geografikoki lurralde zabala baita baina ez da hain handia populazioaren aldetik. IBBY barruan argitalpena zerbeit zikina bezala, komertzio hutsa bailitzan kontsideratu izan dute. Zenbait herrialdeetan editoreak ezin dira nazio-sailetan kide izan; ez dakit... pornografia saltzaile moduan ikusten dituzte. Baina, egiazki, editorerik gabe ez legoke libururik. Bokaziodun editoreek egiten dituzte liburu onak. Argitalpenaren egoera ekonomikoa ulertzea beharrezkoa da gure idealak betetzeko orduan zein mugekin jokatzeko dugun jakiteko. Merkatari soilak garelako esatea ez da nahikoa.

**G:** Alabaina, ezin da ukatu orokorrean kalitateari baino gehiago kantitateari, hau da, liburua errentagarria izateari garrantzia handiagoa ematen zaiola. Munduko herrialdeetako liburuak zabaltzea kezka duen editorea zaitugu; liburuak tokiko hizkuntzetan idatziak izatea bultzatuko dituzten politiken aldekoa zara baita ere. Zer iritzi duzu gai honen aurrean gobernuek azaldu duten jarrerari buruz? Ba ote da ereduagarria den adibiderik?

**P. A.:** Kongresu honetan bertan Elisa Bonillak azalduko adibidea aipatuko nuke [Mexikon martxan jarritako Irakurketa Programa Nazionalaz ari da, zeina Bonillak berak zuzendu zuen bost urtez, 2002tik 2007a arte]. Irakurketa sustapenera zuzenduriko programa izan zen hura, baina eragin zabala eduki zuen eta espainieraz

idatziriko kalitatezko liburuen argitalpena bultzatu zuen. Hasieratik, editore txikiei babes handia eman zieten, programan erabili zituzten liburuen ia erdia haiei zein editore ertainei erosi zizkietelako. Editore handiek horren berri izan zutenean, berehala hasi ziren beren ekoizpena hobetzen.

Urtero joaten naiz Mexikoko liburu azokara, baina gogoan dut epe horren barruan herrialdeari egindako bisitetan liburuen ekoizpena nabarmen hobetua zela.

Kanadan liburu argitalpena diruz lagunduta dago, baina laguntza horien onuradun izateko zenbait baldintza bete behar dira. Esaterako, ia gehienak argitaletxe txikiak gara, eta gure negozioak atzerritarrei ez diegula salduko adostu dugu. Modu horretan, multinazionaleri aukerarik ematea eragotzi da.

Hegoamerikako zenbait herrialdeetan Gobernuak gutxieneko erosketa kopuru bat adostua du kalitatezko ekoizpen nazionala bultzatzeko. Baina munduan ez dago horren ezta aipaturiko gainerako kasuen moduko askorik. Atal honetan gehiago sakondu beharko litzateke.

**G:** Kongresuan aurkezturiko komunikazioetako batean, irakasle galiziar batek iaz euskarara itzulua izan zen galiziar letretako klasiko bat aipatu du. Kontua zera da, aipatu lana argitaratu zuen argitaletxeak ez zuen esan liburu hain garrantzitsua zenik, ezta 1970eko hamarkadan lehen aldiz argitaratua izan zenik ere, beraz, batek uste zuen

gaur egungo lan bat zuela esku artean. Honekin adierazi nahi dugu kalitatea datu hauek zaintzea ere badela.


**P.A.:** Erabat ados nago. Editore onak ezin ditu kontu hauek bazterrean utzi. IBBYk munduan antolatzen dituen tailer gehienek argitalpenarekin zerikusia dute. Zaila izango da literatura nazional ona lortzea ez baduzu liburu onak hautatzen, egileekin lan egiten, informazioa zabaltzen zein publikoarengana heltzen dakien editore onik ez baduzu. Liburu onak ez dira berez sortzen.

Kanadan, editoreei zuzenduriko dirulaguntzaren erdia ekoizpen irizpideen arabera banatzen da. Hau da, editore ohi, lanean jarraitzen duten editore –azken hauek epaimahaia utzi behar dute bere argitaletxea tartean denean–, idazle, kritikari eta liburuzainek osaturiko epaimahai batek argitaletxeak egindako lana baloratzen du. Ildo horretan, editoreei erakargarria egiten zaie beren

liburuen kalitatea hobetzea, horregatik dirua jaso dezaketelako. Kanadan laguntzarik gabe argitalpenak ez luke aurrera egingo. Merkatuan liburu kanadiar bat jartzea ez da ekintza kulturaltzat jotzen. Agian orain dela hogeitau urte kontrakoa pentsatuko zuten, baina, gaur egun, gauzek bestela funtzionatzen dute. Liburu ona izan behar du, bestela, zergatik diruz lagundu beharko luke Gobernuak? Gainera, liburuak erakartzeko liburu onak eskaini behar dira.

**G:** Amaitu baino lehen, IBBYk bultzaturiko «Krisian diren umeak» programan sakontzea gustatuko litzaiguke.

**P.A.:** Orain arte jasotako emaitzak aldatu egiten dira lurraldetik lurraldera. Libanon, programa arras arrakastatsua izaten ari da sei eskoletan hasi baitzen eta orain, Hezkuntza Ministerioaren parte-hartze dela medio, eskola guztietan indarrean







egongo da. Datu garrantzitsua da hori, programak herrialde horretan den banaketa egoera gainditzea lortu duela adierazten duelako.

Gazan (Palestina) egoera konplikatuagoa da. Zortzi hilabete behar izan genituen beharrezko liburuak herrialdean sartzeko. Bigarren etapa, liburutegiak zabaltzea helburua zuena umeak haietara joan zitezen, abian da dagoeneko, baina ezin izan ditugu programan parte hartzera prest zeuden liburuzainak biblioterapia saioetara bidali, ezin baitute lurraldea utzi eta gu geu ez gaude herrialdean sartzera baimenduta, beraz, orain arte Internet bidez egin behar izan dugu dena.

Kolonbian programa finkatzeke dago. Liburu hautapena hil ala biziko kontua da, eta denbora behar da ondo egiteko. Kolonbiako gazteen eguneroko erronkak islatzen dituzten liburuak izan behar dira.


Munduan umeekin lanean ari diren nazioar-

teko agentziak liburu hauek erabiltzera bultzatu nahi ditugu, ez baitute horrelakorik egiten. Venezuelan, krisi garaian, janaria eta arropaz aparte, ez zuten besterik eskaini. Ez dago baten eta bestearen artean hautatu beharrik; elkarren osagarri dira biak. Txinan, esaterako, lurrikararen ostean liburuak bildu egin zituzten, baina ez zen inor joan haiek umei irakurtzera. Hondamendi egoeretan, horrelako ekintzak arras boteretsuak izan daitezke.

Beharrezkoa da erakunde hauek aipatu estrategiak bere egitea IBBY ez delako inoiz hondamendi zonalde guztietara heltzeko gai izango. Baina UNICEFek posible du.

**G:** Diozunagatik, nazioarteko agentziek ez dute aintzat hartzen literaturaren funtzioa.

**P.A.:** Nik esango nuke beren jarrera axolagabea dela. UNESCOn ez da haur eta gazte literaturan espezializatu den inor. Ezta UNICEFen ere; bere politika bestelakoa da. Horregatik, Kopenhagen izango den gure hurrengo kongresura agentzia hauek zein Berreraikuntza eta Garapeneko Munduko Bankua gonbidatu ditugu, biblioterapiari buruzko mintegi batean parte har dezaten. Modu horretan, egiten ari garenaren garrantzia azalduko diegu. Denbora beharko dugu haiek konbentzitzeko, badakigu hori. Baina hainbeste dago egiteko eta hain gutxi gara...



**Entrevista a Patricia Aldana,**  
presidenta de IBBY

*Patricia Aldana es toda una veterana en la edición de libros infantiles y juveniles. Lleva ya treinta años al frente de la editorial Greenwood Books, con sede en Canadá, la cual es todo un referente en el sector.*

*Aldana nació en Guatemala, pero desde hace tiempo reside en Ontario. En 2006, fue elegida presidente del «International Board on Books for Young People» (IBBY).*

*Esta entrevista se realizó en el Palacio Miramar, donde tuvo lugar el «IV. Congreso Ibérico sobre el Libro Infantil y Juvenil», organizado por la Organización Española para el Libro Infantil (OEPLI), y sus secciones: Consejo General del Libro Infantil y Juvenil, ClijCAT (Consell Català del Llibre Infantil i Juvenil), Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literaturako Elkarte, GÁLIX (Asociación Galega do Libro Infantil e Xuvenil), junto con la colaboración de l'APPLIJ (Associação portuguesa para a promoção do livro infantil e juvenil), sección portuguesa del IBBY. El lema escogido para el citado evento fue «Leo Diferente: El Libro Infantil y Juvenil desde la Diversidad Cultural».*

La entrevista completa en castellano en:  
[www.galtzagorri.org](http://www.galtzagorri.org)

**Interview given by Patricia Aldana,**  
president of the IBBY

*Patricia Aldana is a seasoned veteran in the publishing of books for children and teenagers. For the last thirty years she has been running the Greenwood Books publishing house, which has its headquarters in Canada and is a reference in the sector.*

*Aldana was born in Guatemala, but has been living in Ontario for a long time. In 2006, she was appointed President of the «International Board on Books for Young People» (IBBY).*

*The interview took place at the Miramar Palace, the venue for the «4<sup>th</sup> Iberian Congress on Books for Children and Teenagers» organized by the Spanish Organisation for Children's Books (OEPLI), and its sections: the General Council for Books for Children and Teenagers of Catalonia, ClijCAT; the Galtzagorri Basque Association for Literature for Children and Teenagers; the Galician Association for Books for Children and Teenagers, GÁLIX; plus the collaboration of the IBBY's Portuguese Section APPLIJ. The slogan chosen for the event was: «I read differently: Books for Children and Teenagers from the Perspective of Cultural Diversity».*

Translated by Sarah J. Turtle

